



JEROME DELAY / AP

Gerraren mehatxupearan den Bagdadeko herritar batzuk elikagaiak erosten, atzo, *Eid El-Adha* jaiegun musulmanaren bezperan.

Ispilu jokoa basamortuan?

BERLIN-PARIS BAKE PLANA. Alemaniak eta Frantziak gezurtatu dute gerra saihesteko egitasmo sekretu bateratu bat dutela

Edu Lartzunguren | DONOSTIA

Ispiluak ez dena islatzen duenean, begia tronpatzen duen mirajea sortzen da basamortuan. Hala gertatu da asteburuan Irakeko afera gerrarik gabe konpontzeko Berlinek eta Parisek ustez duten «planarekin».

Alemaniako *Spiegel* (ispilua) astekariak ireki zuen, asteburuan, irudi jokoa. Parisek eta Berlinek bultzaturiko Miraje Egitasmoa izeneko plan baten berri zabaldu zuen aldizkariak. Egitasmoaren nondik norakoak emateko Gerhard Schroeder kantzilerraren gobernuko iturrietatik jasotako informazioak aipatzen ditu. *Spiegel*-en arabera, Irak NBE Nazio Batuen Erakundearen «protektoratua» bilakatzea da Berlinen eta Parisen planaren ezaugarri nagusia. Horretarako, NBEko tropa handi bat bidali beharko litzateke Irakera. Indar militar honek nazioarteko ikuskatzaileak babestuko lituzke, Saddam Hussein Irakeko presidentek ustez ezkutuan dituen suntsipen handiko armak desgiteko lanean. Arma ikuskatzaile kopurua hi-

rukoiztuko litzateke. Frantziako *Mirage* (ispilutze) hegazkinak hartuko lukete Iraken gaineko aire eremuaren kontrola, Estatu Batuetako U2 eta Alemaniako *Luna* aireko espioiekin batera.

Peter Struck Alemaniako Defentsa ministroak *Spiegel*-ek zabalduko egitasmoa baieztatu zuen larunbatean, eta NBEko Segurtasun Kontseiluak plana ostiralean aztertzea litekeena zela esan zuen. Washington oso haserre agertu zen, aldizkariak zabalduko egitasmoaren berri eman ez ziotelako europarrak. Segurtasun Kontseiluak onarturiko 1441 ebazpenak jada behatzaileen bitartekoak sendotzea proposatzen duela gogoratzeko esan zien Colin Powellk Berlin eta Parisi.

Igandean, ortzimugan agerturiko irudia ispilutzea zela sumatzen hasi ziren begiak. Gezurtatzea etorri zen Frantziako Atzerri Ministeriotik. Berlin-Paris egitasmo ezkuturik ez zegoela eman zuen aditzera Michele Alliot-Marie Frantziako Defentsa ministro lanetan dabilen euskal herritarra. Haren arabera, Parisek eginiko proposamenei gehitzeko ideiak dira

'MIRAJE'

Ez dagoen plan sekretu ospetsua

Hona Alemaniako *Spiegel* astekariak asteburuan zabalduko eta Parisek zein Berlinek gezurtaturiko egitasmoak ustez proposatzen dituen puntu nagusiak, Irakeko afera gerra saihestuta konpontzeko.

PROTEKTORATUA. Nazio Batuen Erakundeak kasko urdin indar handia bidaliko luke Irakera, herrialdea *de facto* NBERen protektoratua bihurtzeko.

BEHATZAILEAK. Egun ehun bat kide dituen arma ikuskatzaile taldea hirukoiztuko litzateke, eta NBERen tropen babespean ariko lirateke.

AIRE EREMUA. Alemaniako, Frantziako eta Estatu Batuetako aireko espioiek Iraken aire eremua kontrolatuko lukete.

Berlingo gobernuak adierazita-koak, besterik gabe.

Schroeder kantzilerrak ere egitasmoa bazela ukatu zuen, Vladimir Putin Errusiako presidentearekin herenegun Berlinen eginiko bileran.

Alemaniak eta Frantziak Irak desarmatzeko egitasmo bakesku komunik ez dutela esan zuen atzo Bela Anda Berlingo gobernuko eledunak. Prentsan agerturikoak «partekaturiko

ideiak» besterik ez zirela gaineratu zuen. Iraken NBERen protektoratua ezartzeaz mintzatzeko «goizegi» zela esan zuen Schroederren bozeramaileak. Halere, arma ikuskatzaileak soldaduen bidez babestea aspaldi eztabaidatzen ari dela baieztatu zuen.

«Harreman saioetan» eginiko «gogoetak» besterik ez zeudela eman zuen aditzera Walter Lindner Alemaniako Atzerri Ministerioko eledunak. Hasieran «gogoetak daude, gero *Spiegel* etorri da, eta, ondoren, gainerako gutzia», esan zuen.

Liskarrak koalizioan?

Miraje Egitasmoaren inguruko afera Berlinen bakardadea hausteko saio gisa ulertu dute hainbat behatzailek. «Kantzilerraren egun beldur dira Alemaniaren berehalako bakarririk aurkituko ez ote den, gerra abiatuta eta Frantziak gudarekin bat eginda, hori baita litekeena Berlinentzat», zabaldu zuen atzo Frantziako *Liberation* egunkariak. Schroederrek gerrari emaniko ezetzak Alemania bakardade «arriskutsuan» murgildu duela gaineratu zuen.

Alemaniako eskuineko prentsak sozialdemokraten eta berdeen arteko koalizio gobernuaren kontra erabili zituen hautsirikoa ispiluaren zatiak. *Bild-Zeitung* kazetak atzo zabaldu zuenez, Schroeder kantzilerrarekin «haserre bizian» hitz egin zuen telefonoz Joschka Fischer Atzerri ministroak, berak jakin gabe gobernuak planaren berri eman zuelako. Artikulua «tentelkeria» zela erantzun zuen atzo Bela Anda Gobernuaren eledunak.

Europako Batasunak premiazko goi bilerara deitu du astelehenerako

Erredakzioa | DONOSTIA

Europako Batasuneko 15 gobernuburuak datorren astelehenean premiazko goi bilera egitera deitu ditu Greziaren esku den EBko presidentetzak, Irakeko aferaren inguruan dauden ezadostasunak direla eta.

Bilera Bruselan egingo dela, eta gerrari begira jarri komuna hitzartzeko helburua duela eman zuen aditzera atzo Costas Simitis Greziako lehen ministroak.

«Ahalegina egingo dugu Europa ahots bakararekin mintzo dadin, ildo bat izateko beharra baitago. Astelehenean lortzea espero dut», esan zuen atzo Simitisek, Atzerri ministro Yorgos Papandreouekin bildu ondoren. «Iniziatiba hartzea erabaki du lehen ministroak, gure mugimenduak aztertzeko Hans Blix arma ikuskatzaileen buruaren txostenaren ondoren», gaineratu zuen Papandreouk.

Europako lehen ministroen goi bileraz gain, Hamabostetako atzerri ministroak dira batzekoak Bruselan egun berean, «egoera aztertzeko».

Berlin-Parisen proposamenaren alde

Simitisek Atenastik esan zuenez, Grezia bat dator Alemaniak eta Frantziak Irakeko arma behatzaileen misioa indartzeko eta kasko urdinak bidaltzeko hausnarturiko proposamenarekin. Berlinek eta Parisek egitasmoa datorren ostiralerako prest ez izatea litekeena dela esan zuen, eta EBko kide gehienek Blixen txostena aztertzeke denbora gehiago beharko delakoan direla gaineratu zuen.

Greziak ahaleginak egin ditu azken egunotan EBn adostasuna lortzeko, zortzi estatuk Tony Blair Erresuma Batuko lehen ministroaren gidaritzapean Estatu Batuen politikaren aldeko agiri bat sinatu ondoren.

Greziak ez zuen agiria sinatu, eta oso haserre agertu zen galdetu ere ez ziotelako egin.